

Europa berria

INAKI ZABALETA URKIOLA



ASKOTAN entzun eta irakurri dugu, eskola garaietatik hasita, Europa zaharra dela, kultura zahararen gordeleku. Eurozentrismoa modan egon da beti kulturaren alorrean eta Europako inteligentsiak zain greko-latino mugatueta bakarrak edan du. Beraz eta horregatik, nire ustez, europar kultura nahiko zaharkitua, herdoildua izan da. Horren sinbolo adierazgarri bat Estatu-nazioena da. European zehar estatu-nazioak ez dira lege eta indarrari esker sortutako errealitateak bakarrik, baizik eta baita jende intelektualek eman dion justifikazioari eta hezurdura zientzialistari esker sortutako ere. Eta Estaduairen eta intelektualen arteko lotura eta elkarren beharra handia izan da beti, menpekotasunak sortuz.

Europa berria egin nahi bada, ezin izango da Europa zahararen kontzeptu intelektualek eta errealitate zikiratzaile baten inguruan eraihi, hau da, «Estadunazioaren» inguruan. Europa berriak beste sinbolo bat, beste hezurdura zientzialista bat, beste izpiritu intelektual kritikoa beharko dituen, eta guzti hau, «Estadurik gabeko nazioetan» laburbiltzen da. Europa zaharra behingoz hiltzea komeni da edo hobeki esanda, zaharretik loratuko da berria, sistema feudalarkein eta gerago Frantziako absolutismoarekin gertatu zen bezala, baina hori ez da erraz gertatuko eta, batez ere, ez da politikoki gertatuko jende intelektualek berri eta progresistek politikoi diskurso etiko eta kulturala ez badiete ematen eta eskatzen. Europa berriak politikoki berriak ere eskatzen bait ditu. Bestela Europa zaharri pintura pusko bat ematea besterik ez da izanen dena, aurpegi azala goratzea bezala. Jose Luis Aranguren irakasleak garbi esan du.

Gerra zibila?

JOAN MARI TORREALDAI



ASTEARTEAN lagun batek bisitatu ninduen bulegoan. Noizbehinka etortzen zait, «mundua konpontzea». Gaurkoan ere bazegoen zer konpondurik munduan. Eta

Euskal Herrian. Gerra zibilaren arriskua aipatu da egunotan. Non, Euskal Herrian?

Batek: Gerra zibilaren arriskurik badago, bai. Bilbon gertatu dena abisu bat izan daiteke. Aspaldi abisatu zuten arrisku horretaz Beltza batek eta Joxe Azurmedi batek.

Besteak: Ez da posible, gizona, horrenbeste buru izango al dute gure politikoei? Politikoi ere konfiantza piska bat egin beharko zaie, ba! Ez al da, ba, politikariaren egitekoa gatazka konponduz elkarbitzita baketsua lortzea?

Batek: Ba, ez batera fio, orain artekoa ikusita bederen. Maila eskasa —exkasa!— ematen duela politikariak! Inprobisazioa ugari!

Eta gure politikariaren eta alderdi politikoen jokua zegu dugu hitzegiten.

Batek: Alderdi politikok bere burua kakaizten ari dira, eguna joan eta eguna etorri. Edozer gauza da salgarri, erosgarri, trukagarri. Printzipioek ez dute piperrik balio. Botoa ez da ezertarako errespetatzen.

Besteak: Bere burua bakarrik kakaiztu balute, gaitz erdi. Sistema bera ari dira desprestigiatzen. Ez al dira konturatzen? Nazkatzen, okatzen, higitzen ari da jendea, hainbeste iskanbila, irain, iseka, eraso, joku maltzur eta nahasmendu-zirimoniekin. Ezin zaie hitz bat sinetsi!

Batek: Ondorioen beldur naiz ni.

Besteak: Ez gutxiago ni. Politikariaren higuinaren atzekaldean dagokeenaren beldur.

Eta luze jarraitu dugu. Zein zen, baina, «bat» hori eta zein «besteak»? Edozein. Zein nintzen ni neu ere ez dakit.

EL CORREO ESPAÑOL

Simetriarik gabeko errepublika

Eskena zaharra berriro ere. Alemanen aurrean erusiarrek sebiarrei beraien laguntza eskaintzen diete, frantziarrek azpizokoa dabilta alemanen aurrean, gauzak oso erraz izan ez dituzaten. Europak baterurik dihardu oraindik baina ez lehen adina. Alemaniak, Europaren onarpen osoa ez izan arren, bere ideiak ditu eraginpean duen lurraldeari dagokionean. Mugak pil-pilean daude. Stalinekin gerra ondoren, Polonia, Txekoslovakia eta Alemaniako lurraldeak hartu eta mendebaldeko sovietar errepubliken artean banatu zituen. Zer gertatuko da hori guztia berriro mugitzen hasten bada? Noraino iritsi daiteke errefuxiatu andana jarria.

MANUEL LEGINETXE / 1991-IX-7

DEIA

O Felix culpa

Diputazioa bezain haundi egin duten 'Lurraldea' rekin mintzatu da Eli Galdos. Hbk, berriz, Batzar Nagusiek erabakitzen dutena onartuko duela baitetsi du. Aurretik eta ondoren izan da baieztapen borobil hori dudamudako bihurtu duenik. Hala ere, auzi hori Batzar Nagusietara eramanez

HEMEROTEKA



GALLEGO & REY / DIARIO 16 / 91-IX-7

beharko luke Eli Galdosek. Baita galduko duela jakinik ere. Merezki du Hbk bere hitzari eusten dion ala ez jakiteak. Batzar Nagusietan berraztertzea ez da demokratizazioaren kontrako. Manifestaldira joan ginenon gehienok ez ginen A-2 defenditzera joan, demokrazia eta erakundeak defenditzera baizik. A-4aren abantaila guztiak azaldu ondoren Batzar Nagusietako juntero gehienek berriro A-2 aukeratzaren badute, kitto. ETAk eta Hbk ikusiko dute herri hau zer zutolara sartu nahi duten.

M. ATXAGA / 1991-IX-7

Diario 16 Gotzainen nahastea

Ez da egia Katalunia egoera anbiguoan eta amets etenda dagoenik. Ez da egia Katalunia beste nazio baten menpe dagoenik. Ez da egia Katalunia libre ez

denik. Eta ez da egia Kataluniako arazoetan katalanek bakarrik erabakitzeke eskubidea dutenik. (...)

Katalunia autodeterminazioan dihardu bisigodoen garaietatik Jaime I arte, Fernando de Antequeraren garaietatik 1978ko Konstituzioa arte. Guztia ezin da berriro aztertu, gotzainek zentzurik gabe dioten moduan. Historia ezin da berraztertu. Katalanek protagonizatu eta beren gain hartu duten historiak autodeterminatu du Katalunia dagoen lekuan egon dadin.

EDITORIALA / 1991-IX-7

EL MUNDO

Armada, aberriaren bermea

Edozein filosofia politikokoak Estatuaren indarra onartu egiten du, Estatu modura onartua izan

dadin ezinbesteko eta oinarriko ezaugarria dena. Izan ere, indar hori armadan eta seguritate indarretan gauzatzen da. Horiek gabe eta azken batean gure defentsan irtegan liratekeen segurtasunik gabe, utopia, ustekabe edo ahularen kontrako indartsuen berekikeriaren aurrean, nola ziurta liteke nazio baten edo Estatu baten batean naturik dauden nazioen oreka? (...)

Ulertzekoa da, demokrazia eta askatasunaren bidez gogor finantziaturik dauden gure Estatuak eta bertako Erakundeek ez lotsatzea, batasun nazionalaren bermatzailea Armada izatearekin.

Nazioaren banaketara eramanez lezaketzen jarrera pasiboak izatea konstituzioaren aurka joatea litzateke, eta Konstituzioa bera eskuan hartuta batek daki zer nolako erantzun izango edo izan beharko luketen.

MANUEL FERNANDEZ MONZON / 1991-IX-7

ZUZENDARIARI

Datorkigun Europa berria

Ekialdeko European azken bolada honetan ikusten ari garen gertaerek zalantzarik sortzen ez duten bi errealitate erakusten dituzte, nere ustez: ideologien krisi sakona eta nazionalismoen gorakada geldiezina. Honela, Europako gaurko mugek aldaezinak ematen bazuten ere, eta haien berriakuspea planteatzea histori-anakronismotzat jotzen bazen (zenbat alditan aditzen ari genuen doinuak famatu hura: «zuek, abertzaleak, beti bidez kontra zabilzate; Europa guztian mugak erortzen ari diren bitartean, zuek independentziari eusten diozue»), Ekialdeko gertaerek, dagoeneko, arrazoi

ematen digute. Irlandatik Lituaniaraino, herri zapalduen askatasunaren oihua European zehar zabaltzen ari da, herri bakoitzak bere nortasuna eta izaera mantendu nahi bait du.

Historiaren norabidearengatik gaidintuak, «batasun zatitu ezinaren» zaleek (haien artean, beraien burua abertzaletzat jotzen duten zenbait euskaldunek) sinistarazi nahi digute Lituaniarentzat, Estoniarentzat, Kroaziarentzat edota Ukrainiarentzat zilegi den eskubidea, Euskal Herriarentzat, Korsikarentzat, Kataluniarentzat edota Galesentzat, aldiz, lekuri ez duela. Alferrik baina. Eskubide nazionalak ez dira dekretuen bidez banatzen, berez nahikeri personal,


histori-ezarpen eta politikariaren joan-etorrien gaitetik bait daude, oraintxe ikus ahal dugunez. Gero eta hurbilago dugu nazio askatuen eta elkarbideen Europa berria. Ikusiko dugu bestela.

JOSU ALBERO BARCELONA

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERSONAIA



Santi Belar 'Begi'

Maite hituen askatasuna lagunak eta bizitza. Saminak gorde edo isilduz pozerako huen hitza. Hara-honako planak egiten askotan gintuan mintza. Rima ilunez jantzia zegok hi gabe bertsozalaritza.

JUSTO ETA KRISTINA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Publikatzaia:

KORNELJO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11